

# B

BARREN

TOKIKOM

**“Bakearen etsaien  
blokeo saiakerei  
urrats berriekin  
erantzungo diegu”**

**Arnaldo Otegi**



ATERA EUSKARA  
EGUZKITARA!



# EUSKARA UDAN MAILA OFIZIALAK · EGA

[www.aek.org](http://www.aek.org)

- ☑ 3. maila = EGA
- ☑ Iraileko azterketak prestatzeko eskolak
- ☑ Eskolak uztailean eta irailean
- ☑ Izena eman ekainaren 27ra arte
- ☑ Ikasleek, gurasoek eta langabetuek matrikula erdia Udalari esker

**aek**

AEK EUSKALTEGIA  
PLAZA TXIKIA 3, 1.  
Tel.: 607 601 423  
[elgoibar@aek.org](mailto:elgoibar@aek.org)

UDAKO IKASTAROAK 2012  
MATRIKULA ZABALIK



MATRICULA ABIERTA

[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

**ONGI ETORRI**

BIENVENIDO  
WELCOME  
BENVINGUT

BIENVENUE  
WILLKOMMEN  
BINE AI VENIT  
BEN-VINDO

UDAKO IKASTAROAK 2012  
Matrikula zabalik  
Matrikula abierta  
[www.udaleuskaltegiak.net](http://www.udaleuskaltegiak.net)

UDAKO  
IKASTARO  
TRINKOAK

CURSOS  
INTENSIVOS  
DE VERANO

UDAL



ERIKAZTEGI MUNDOPAZ  
UDALAREN  
BARRUNTZARAKO  
ENTZATI OFIZIALA

## 2. DEIALDIA PRESTATZEKO IKASTAROA

3. maila eta EGA  
Uztaila - Iraila

Uztailaren 2tik 27ra (3 ordu egunean)  
Irailaren 10etik 21era (2 ordu egunean)

Prezioa: 115 euro.  
Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 73 euro.  
Bekatzeko-sistema.

Matrikulaldia: Ekainaren 28a arte.

Kalebarren plaza, 2.  
20870 Elgoibar  
Tel./Faxa: 949 742 791  
[elgoi.euskaludal.gipuzkoa.net](http://elgoi.euskaludal.gipuzkoa.net)

UDAL



ERIKAZTEGI MUNDOPAZ  
UDALAREN  
BARRUNTZARAKO  
ENTZATI OFIZIALA



**Unai  
Arrieta**

Zuhaitz, aspaldian kirol mundutik marka eta emaitzez gain, gizarteak bereberek dituen auzien berri iristen zaigu: klub eta elkarten desagertzeak, ez ordaintzeak, kaleratzeak, epaiketak.

Kirola profesionalismo merkantilizatua eta masen pasiozko ikuskizuna

bilakatu denetik ez da gizartearen eta ekonomiaren ajeetatik salbu. Ez gara ez egoera honetatik salbu, Zuhaitz, kirol profesionalak egoera sozioekonomikoaren erritmora dantza egiten baitu. Gizarteko sektore guztietara zabaldu den krisialdi honek arduratzeko moduko itxura du: langabezia gora eta gora, lan-baldintzak eta lanaren ordainak berriz behera, eta bitartean, banku eta dirudunen lukurreriak mugarik ez. Hau da marka, hau! Arduratzeko moduko itxura du honek, Zuhaitz.

**“Zuhaitz, agintari hauek txiro nahi gaituzte; txiro eta gor-mutu-itsu”**

Bizi ditugun miseria hauetako batek itzel alarmatu nau azken egunetan. Duela hamabost bat egun Espainiako Hezkuntza ministroak arlo honetan 3.000 milioi aurrezteko sei puntutako murrizketa-plana aurkeztu zuen. Hemendik aurrera lan-orduen igoera eta lansarien jeitsierarekin batera, ikasle gehiagoko gelak eta irakasle gutxiagoko hezkuntza izango dugu, Zuhaitz.

Zientifikoki ebidentzia handiak aurkitu dira ikasgeletako ikasleen ratio murrizketaren eta hezkuntza kalitatearen hobekuntzaren artean. Egin al liteke gure ehundura pertsonal, emozional eta sozialaren aurka hau baino eraso ankerragorik? Gurpil zoro honetatik irteko esperantza hezkuntzan egon zitekeela pentsatzen nuen, baina badirudi ez dela horrela izango. Zuhaitz, agintari hauek txiro nahi gaituzte; txiro eta gor-mutu-itsu.



**Zuhaitz  
Gurrutxaga**

Kaixo, Unai. Une gogorak bizi dira gaur egun, bai. Murrizketak handik eta hemendik. Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol ministeritzako aurrekontu partidei begira aritu naiz, eta zuk esan bezala, hezkuntzan murrizketa handiak egingo dituzte. Kezkagarria deritzot horri, bai, eta estatistikan aditua izan beharrik ez dago, ikasgeletan irakasleak gutxitu eta ikasleak gehitzeak gauza onik ekar ezin dezakela ikusteko. Gure etorkizuna diren gazteen irakaskuntzan atzerapauso nabarmena, zinez.

Aurrez aipatutako aurrekontuok erreparasatuz, nabari da, tamalez, Kultura Sailean ere murrizketak izango direla. Bada, ordea, harritu nauen daturik. Kirol Saila da murrizketarik jasango ez duen apartatu bakarra. Zer pentsatua ematen dit datu horrek, Unai. Sinistu beharko dugu garai bateko Erromako hiritarrei eman ohi zitzaien *pan y circo* zeritzan harekin antzekotasun handiak dauzkala gaur egungo kirolak, eta zehazki futbolak.

**“Erromako ‘pan y circo’ zelako harekin antzekotasun handiak dauzka kirolak”**

Guk kirola ogibidetzat izateko zortea eduki dugu, Unai, baina ziur naiz zerorrek ere sentitu duzula inoiz “zirko” horren partaide izan izana. Ez naiz orain zurikeriatan ibiliko, eta ez daukat zirko honen barruan hainbeste urtean aritzearen damurik, baina gertatzen denaren jakitun izanda, legezkoa deritzot publikoki esatea.

Eurokopa eta Olinpiar Jokoak izango ditugu datozen hilabeteotan. Batzuen pena eta tristurak ezkututuko dira alde batetik. Gaur egun gauden egoerara eraman gaituztenen aurkako kexa eta protestak ere isilduko dira, baina.



ESKERTZA

**LUIS PEREZ VILANOVA**

2012ko ekainaren 12an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak  
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## Urre kolorez jantzi da Elgoibar Ikastola



J oan zen zapatuan ospatu zuen Elgoibar Ikastolak 50. urteurreneko egun handia. 900 lagun inguruk hartu zuten parte ospakizun horretan, eta antolatzaileak oso pozik agertu dira herritarrek emandako erantzunarekin. Ekitaldiak goizean goiz hasi ziren, eta iluntzera arte egon zen non gozatu. Tartean, Ikastolaren errifaren zozketa egin zuten. Saridunek 15 eguneko epea dute saria jasotzeko, 943 744 441 telefonora deituta. Hauek dira zenbaki irabazleak: 1. saria; 3330 (azaldu da irabazlea), 2. saria; 2147 (azaldu da irabazlea), 3. saria; 2981 (ordezkoa, 2705), 4. saria; 1081 (ordezkoa, 0687). Ondorengo erretratuetan jaso ditugu ekitaldiko hainbat une, baina hori eta gehiago eman zuen ospakizunak. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net)

*Ikastolaren sorreran eta ibilbidean jardun dutenak omendu zituen Udalak.*



*Javier Larrañaga egungo zuzendariak jaso zuen oroigarria langile profesional guztien izenean.*



*Lehendakariak, langileak, zuzendariak eta Ikastolaren ibilbidean protagonista izan diren elkarte eta erakundeetako ordezkariak.*





Carlos parrokoari eskerrak eman zizkion Ikastolak, sorreran emandako babesagatik.



Erdiko aretoa jendez gainezka egon zen.



Ikastolaren 50. urteurreneko plaka bistaratu zuten.



Haritz dantza taldea, parrokian.



50 urteotan protagonista izan direnak batu ziren erdiko aretoan.

Hasierako irakasleak eta Agustin Gorostiza, orogarrria eskuan dutela.



Mikel Olaizolak eta Maddi Mendibilek bertso-tan egin zuten, ekitaldiari hasiera emateko.



Argitxok eraman zuen sorrera urteko globoa.



'Amets bat' abestia kantatu zuten omenaldiaren amaieran.



Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako en erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

#### Argitaratzailea:



#### Laguntzaileak:



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Zaborren bilketaren inguruko iritzi ezberdinak

Alderdi politikoez aparte, begira dezagun zer beste iritzi dauden.

Talde ekologista guztiak Atez Ateko sistemaren alde daude: Greenpeace, Ekologistak Martxan, Eguzki, Haritzalde...

Zero Zabor: (ingeleseztik *Zero Waste*). Hondakinik ez sortzea helburu duen mundu mailako mugimendua da. Gipuzkoan ere badu ordezkaritza. Zero zaborrera iristetik gertu dagoen sistema Atez Atekoa da egun, munduan. Halere, produktiotik azkeneko kontsumitzaile arte dena zaindu beharra dagoela diote, eta hor soilik materiale birziklagarriak ekoiztean dago gakoa.

Eta gainerako herrialdetan? *Zero Waste* helburu hartuta, atez ateko sistemarekin Kalifornia eta Italia dira lekurik interesgarrienak.

Katalunia ere gogor dator, tartean turismotik bizi diren hainbat herri atez atekoa egiten dute (nahiz eta herri bat atez atekotik atera den). Mugimendu honen bitartez, munduko herri eta hiri aurreratuenak kontzientziatuta daudela ikusi dugu.

Organismo publikoek zer diote? Ikusi dugu Madrilgo Ingurumen Ministerioak eredugarritzat hartu duela Usurbil atez atekoagatik.

Europako gomendioak argiak dira: lehengai gabezia daukan herrialde honetan zaborra urrea dela dio, eta ezin dugula besterik gabe bota: Hori, erraustea botatzea dela gehitu dio. Are gehiago, PNV, PSOE eta PPko europarlamentariak erraustegien aurka bozkatu berri dute. Estatu mailan, alderdi horiek erraustegien aurka, eta are gehiago, batzuk atez atekoaren alde daude. (ikus [www.elgoibarren.net](http://www.elgoibarren.net) webgunean Okil beltzen txokoa). Zertan ari dira orduan Gipuzkoan?

**Okil beltzak** ☹

### Zorionak!

Aurtengo Trinitateetan ere, laugarren urtez jarraian, Malako jai batzordeak Elgoibarko baserrietako sagardo dastaketa antolatu du Leku Ederren. Aurten, hamar baserrik hartu dute parte dastaketan, eta jendearen iritzi, Armaxio baserriko sagardoa izan da hobereena. Zorionak, beraz; Aginte makila etxera eramateko moduan zaudete.

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten baserriek: Armueta, Azaola, Antxola, Upai-txiki, Amuskatei, Urrategi, Zulueta, Armaxio, Olazar eta Lizundia. Gora gure baserrietako produktuak! Eskerrak, baita ere, sagardoa banatzen jardun zuten gazte guztiei, eta hurbildu zineten guztiei. Aupa, zuek! Ea luzaroan jarraitzen duen Debemene azoka hau antolatzen. Datorren urtera arte, ondo segi.

**Maalako Jai Batzordea** ☹

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.



**Sigmako aparkalekuko argiak piztuta egoten dira egunez ere:** “Sarri joaten naiz Sigmako supermerkatu batera erosketak egitera, eta aparkalekuko argiak egunez ere piztuta egoten dira. Ez dut uste beharrezkoa denik, eta dirua aurreztu beharko litzatekeela iruditzen zait”.



**Osasun Zentrotik San Roke auzorako igogailua zikina dago:** “Osasun Zentrotik San Roke auzora doan igogailua ez dute behar beste garbitzen. Azkenaldian oso zikina dago, eta garbitzeko beharra dauka”.



**Elgoibar Ikastolak eskerrak eman dizkie zapatuko ospakizunean parte hartu zutenei:** “Eskerrik asko bihotz bihotzetik, hain egun eta festa ederra bezain hunkigarria posible egin duzuen guztioi!”. Era berean, gurasoek ere eskertu dute Ikastolak eginiko lana: “Zorionak ikastolaren 50. urteurrena antolatzen jardun duten guztiei. Egun zoragarria pasatu genuen, emozio unez beteta. Antolakuntza ezinhobea izan zen, eta dena primeran irten zen. Hurrengo urteetarako maila altuan utzi duzue pabilioia!”.



**Eskerrik asko Pili Freitas eta Jose Morenori Kalamua Guraso Elkartearen partetik:** “Mila esker, Pili Freitas eta Jose Moreno urte hauetan guztietan egindako lanagatik, eman diguzuen guztia fruituak denbora luzean jasoko ditugu. Andrea Arriolari ere txalo bero bat, presidente gisa egindako lan guztiagatik. Datorren urtean ere gure artean jarraituko duzu, baina ezingo ditugu sekula ahaztu orain arte zuk gidaturik egindako guztiak. Mila esker, Herri Eskola osatzen dugun guztion partez”.



Zuon kekek, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) / 943-741 626

## Martitzenean hasiko da Elgoibarko pintxo lehiaketa

21 tabernak hartuko dute parte



**E**lgoibarko Udalak pintxo lehiaketa antolatu du. Lau egunez egingo dute lehiaketa, ekainaren 19tik 21era. Martitzenetik eguenera, 19:00etatik 22:00etara dastatu ahal izango dira pintxoak, eta barixakuan, goizez (12:00-15:00) eta arratsaldez (19:00-22:00) egongo da horretarako aukera. Pintxo guztiak 1,10 euroan salduko dituzte. Aurten hiru sari banatuko dituzte: Pintxo Onenaren Saria, Baserrikoa Pintxoaren Saria eta Herritarren Saria. Bozketan parte hartzen duten herritarren artean Belaustegi jatetxean bi lagunentzako dastatze menua zozketatuko dute.

### Bihar, Altzolan

Altzolan ere pintxo lehiaketa egingo dute, bihar, Zubibaik antolatu-ta. Edonork hartu dezake parte, norberak egindako pintxoekin. 12 eta 24 pintxo artean aurkeztu beharko ditu partaide bakoitzak, 12:00etarako, Altzolako frontoian. Irabazleak 60 euro jasoko ditu, bigarrenak 40 euro eta hirugarrenak 20 euro. Sari banaketaren ostean pintxoak dastatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

## 1936ko gerran hildako lau gudariren gorpuak topatu dituzte Zirardamendin

Gerra Zibilean hildako lau gudariren gorpuak lurpetik atera dituzte Zirardamendin Ahaztuen Oroimenak eta Elgoibar 1936 taldeak, Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin. Gorpu horiek hainbat lekukok emandako testigantzei esker topatu dituzte, eta haien laguntza eskertu dute Elgoibar 1936 taldekoek, bereziki Bittor Agotek eta Felix Etxeberriak emandako laguntza. Zapatuan omenaldi xumea egingo diete hildako gudariei, eta omenaldi horretan parte hartzera deitu dituzte elgoibartarrak Elgoibar 1936 taldekoek. 12:00etan izango da omenaldia, baina 11:30ean batuko dira Aiastiako ermita aurrean, gorpuak topatu dituzten lekura elkarrekin joateko.

## Errauskailua non jartzea proposatzen duen galdetu dio ezker abertzaleak alkateari

Gipuzkoan gutxien (%27) birziklatzen duen herria Elgoibar dela salatu du Elgoibarko ezker abertzaleak, eta kargu hartu dio Elgoibarko alkateari eta EAJri oro har, atez atekoaren kontra eta errauskailua bultzatzearen alde egitea leporatuta. Horren harira, errauskailua non jartzeko asmoa duen galdetu dio Alfredo Etxeberria alkateari.

## AENOR merkataritza kalitateko markaren ziurtagiria jaso dute Zumaian Elgoibarko zortzi merkatarik



AENOR merkataritza kalitateko markaren ziurtagiriak banatu zituzten joan zen astean Zumaian, eta, beste askoren artean Elgoibarko zortzi merkataritza ere saritu zituzten: Muruamendiaraz goxotegia, Astigarra, Pitxintxu, Ferpi, MG Burdindegia, Luvik zapata denda, Patxi harategia eta Garate jantzi denda. Ekitaldi bukaeran ateratako talde argazkia duzue ezkerrekoa.



## Ekitaldia **Oin Alai berezia**



Malabarista, pailazo, trikitalari eta Mauxitxa txarangakoekin egin zuten eskolara bidea Oin Alai ekimenekoek barixakuan. Aurten 85 umek eta 25 boluntariok hartu dute parte ekimen honetan, eta antolatzaileek jakinarazi dute zabalik dagoela datorren ikasturterako izena emateko epea (Elgoibar Ikastolan eta Herri Eskolan eman behar da izena). Era berean, boluntarioak behar dituzte ekimenak martxan jarrai dezan. Bestalde, 50 euroko erosketa txartelak zozketatu ditu Udalak boluntarioen artean, eta hauek izan dira otsailetik ekainera bitarteko irabazleak: Javier Oñederra, Idoia Alonso, Lourdes Vilalgarcia, Jose Mari Igartua eta Mari Jose Azpiazu.

## Ekitaldia **Eskolako Agenda 21**

Udalbatzar berezia egin zuten joan zen astean Elgoibarko udaletxean. Izan ere, eta Eskolako Agenda 21 egitasmoaren barruan, Elgoibarko ikastetxeetako 40 bat ikaslek parte hartu zuten udalbatzarrean. Ikasturtean zehar mugikortasunaren gaia landu dute eskoletan, eta alor hori hobetzeko proposamenekin joan ziren udaletxera eskola umeak. Herriaren diagnostikoa egin, hobetu beharrekoak identifikatu eta horiek bideratzeko proposamenak egin zizkieten agintariei.



## **Hilabetez itxi egingo dute Pedro Migel Urruzuno kalea, obregatik**

Datorren astetik aurrera trafikoa-  
rentzako itxia egongo da Pedro Migel Urruzuno kalea, obrak direla-eta. Udaltzaingotik jakinarazi dutenez, hilabete inguru luzatuko dira lan horiek, eta bitarte horretan, debekatuta egongo da San Frantzisko, San Bartolome eta Errosario kalean kotxeak aparkatzea.

## **'Aire garbiak bira nazan' ekitaldira joateko jakingarriak**

*Aire garbia bira nazan* ekitaldia antolatu du Gipuzkoa Zero Zabor elkarteak. Mosaiko erraldoia osatu nahi dute Donostian, eta horretarako era guztietako eragileak bildu nahi dituzte. Elgoibartik ere egongo da autobusa Donostiara. 10:30ean irtengo da Kinkoneko geltokitik. Autobuserako izena eman nahi duenak Jai Alai, Iturri, Iratxo edo Lanbroa tabernetan egin behar du. Mosaikoan parte hartzeko, kartulinak behar dira, eta autobusez joango direnei autobusean bertan banatuko dizkiete. Trenez edo autoz joateko asmoa dutenek, berriz, honako telefono honetara deitu dezakete, kartulina eskuratzeko: 615 005 832.

## **Bi lagun atxilotu zituzten zapatuan, beste lagun bati labanaz erasotzea egotzita**

Eusko Jurlaritzako Herrizaingoa Sailak jakinarazitakoaren arabera, 18 eta 28 urteko bi gizonezko atxilotu zituzten zapatu gauean Elgoibarren, ustez beste gizonezko bati ipurmasailan labankada bat emateagatik. 22:00ak inguruan jaso zuten abisua Eibarko Ertzain etxean. San Frantzisko kalean borroka bat egon zela jakinarazi zuen lekuko batek, baina ertzainak Elgoibarren agertu zirenean ihesari eman zioten ustezko bi erasotzaileek. Lekukoek egindako deskribapenari esker topatu zituzten, eta lesio delitu bat eta autoritateari erresistentzia agertzea leporatu diete bi atxilotuei.

*Maiatzean...*

## JAIOTAKOAK



**Ibon Baskaran Beristain**  
Maiatzak 10  
Ekaitz eta Arantza



**Teo Galdona Palomino**  
Maiatzak 12  
Koldo eta Silvia



**Unax Arzamendi Azkue**  
Maiatzak 21  
Mikel eta Eneritz

**Mikel Zubiaurre Bilbao**  
Maiatzak 8  
Ion eta Maialen

**Nahia Arteaga Lopez**  
Maiatzak 2  
Jorge eta Itxaso

**Nerea eta Joseba Leon Bautista** Maiatzak 4  
Haritz eta Begoña

**Lucia Tejero Borjas**  
Maiatzak 12  
Jesus Mari eta Sandra

## HILDAKOAK

- Ana Garmendia Lasa • 95 urte • Maiatzak 2  
Prudencia Zabala Bernedo • 89 urte • Maiatzak 6  
Itziar Loiola Arrillaga • 32 urte • Maiatzak 7  
Dolores Molina Blanco • 93 urte • Maiatzak 7  
Angel Mari Arregi Cano • 51 urte • Maiatzak 11  
Lucia Gabilondo Elkoro-Iribe • 90 urte • Maiatzak 13  
Imanol Arriola Zabaleta • 83 urte • Maiatzak 14  
Ernesto Matias Benito • 77 urte • Maiatzak 17  
Purificacion Gonzalez Muñoz • 83 urte • Maiatzak 21  
Cruz Agirre Goyogana • 79 urte • Maiatzak 24  
Maria Azucena Fernandez Prieto • 60 urte • Maiatzak 24  
Sabino Intxaurreaga Rekalde • 78 urte • Maiatzak 27

# ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

## TANATORIOA



**KUTXAK  
TRASLADOAK  
KOROAK**

**NORBANAKOEI  
eta  
KONPAINIEI  
zuzenduriko  
zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan  
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27  
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56  
(Sakelekoa) 635 756 295

ESKERTZA

## ASIER ORTEGA FERNANDEZ

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.*

*Bidelagun izan zaitugunok*



## Erretratu zaharra

1956

1956ko erretratu zahar honetan Ricardo Mujika *Fonta* eta Txomin Mujika Udal Musika Bandako egungo zuzendaria agertzen dira. Erretratua Aita Agirre plazan (Plaza Txikia) aterata dago, hori zelako garai hartan euren mundua. Eskola, jolasak, lagunak... dena Plaza Txikian biltzen zen haientzat, eta oso gutxitan irteten ziren Plaza Txikitik. Argazkiaren atzeko aldean antzinako azoka plaza ikus daiteke, Pedro Muguruza arkitekto elgoibartarrak eginikoa. Erretratuaren eskuin aldean, berriz, garai hartako dutxa eta komun publikoak ageri dira, burdinezko hesiekin.



Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

**Idama**



Maiatzeko irabazlea:  
**SARA  
ETXEBERRIA**

Ekaineko saria:  
**GEMOTERAPIAKO  
MASAJEA**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)  
Tel.: 943 74 40 26

Jarri ezazu zure publizitatea  
**BARREN**en edo  
[www.elgoiBARREN.net](http://www.elgoiBARREN.net)  
webgunean

[barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**B** ARREN  
astekarian  
943 744 112



# ARNALDO OTEGI

Espainiako Auzitegi Gorenak *Bateragune auzian* emandako epaiaren eta egungo egoera politikoaren gaineko balorazioa egin du Arnaldo Otegik (Elgoibar, 1958) kartzelatik. Tartean, ezkerren erronken, independentziaren eta presoen gaiaren inguruko gogoeta ere egin du, eta maiatzaren 12an Otegiren aldeko herri ekimenak deituta Elgoibarren egin zen manifestazioa ere izan du hizpide. Gorenak kasazio helegitearen inguruan emandako epaiaren berri jakin eta astebetera egindako elkarrizketa duzue hau, ETAk Espainiako eta Frantziako gobernuekin "elkarrizketa zuzena" izateko ordezkari bat izendatu zuela jakin berrikan egindakoa.

**“Bakearen etsaiek agenda propioari eusten diote prozesua kolapsatzeko”**

Zigorak murriztu arren, Espainiako Auzitegi Nazionalaren tesiarekin bat egin du Auzitegi Gorenak 'Bateragune auzian'. Hau da, dena ETA da tesiarekin. Zer balorazio egiten duzu?

Balorazioa egiteko orduan lehen ondorioa garbia da: Espainiako tribunalek euskaldunak epaitzen gaituztenean kriterio politikoak erabiltzen dituztela sententzia idazteko orduan, eta ez irizpide juridikoak. Bada atera beharreko bigarren ondorio bat ere: gure atxiloteta eta kartzelazteekin ezker abertzaleak bake bidea ez hautatzea bilatzen zuten, eta, orain, epai honekin (Parot doktrinarekin egin bezala), bakea zapuztea dute helburu. Gogorra bada ere, argi esango dut berriro ere: bakearen etsaiek (PP, PSOE, indar armatuak...) agenda propioari eusten diote prozesua kolapsatzeko. Ez dute lortuko, baina!.



Gorenaren epaian bi boto partikular izan dira. Zer garrantzia ematen diozu horri? Zure defentsak Auzitegi Konstituzionalean aurkeztu asmo duen babes helegiteari begira, eraginik izan dezake horrek? Alegia, badago boto partikularrak pisua izan dezakeela pentsatzeko arrazoirik edo aurrekaririk?

Irakurketa juridikoa eginez, guk kartzelan jarraitzearen injustizia handitu egiten du oraino, zeren eta bi boto horiek zera adierazten dute: tribunalaren %40k epaiketa ez zela justua eta inpartziala zela esan zuela, eta horri gehitzen zaio %20k gure kontrako frogarik ez dagoela gehitu zuela. Horrek gure kaleratzea ekarriko luke edozein zuzenbide estatutan, baina estatu espainiarrean erabakia berriz ere termino politikoetan hartuko da.

**Gorenaren epaiak jende asko atera du kalera. Elgoibarren ere 'Bateragune auziaren' bidegabeba salatu zuten ehunka lagunek joan zen astean [maiatzaren 12an], eta Elgoibarko Udaleko Osoko Bilkurak ere idatzi bat kaleratu berri du, zuen absoltzioa eskatzen. Zer duzu esateko?**

Lehenik eta behin, neure eskerrik beroena eman nahi diet bai gurekiko zein gure sendiekiko elkartasuna adierazi duten guztiei, bereziki Elgoibarko plataformako kideei eta baita Udalean sostengua eman diguten guztiei ere. Bigarrenik, zera esango nuke: Euskal Herrian bizi dugun egoera berriak aukerak biderkatzen dituela elkarturik lan egiteko. Zentzu horretan asko poztu nau Elgoibarko plaza eta kaleak hainbat ekimenetan ezker abertzaleko, EAKo, Aralarreko, Alternatibako, Gaztetxeko, ELAKo, LABeko, UGTko, CCOOeko... eta baita PSE-EE eta PNVko jendez beteak ikusteak.

**Askok galdetzen dute zer moduz zauden eta zelan bizi duzun kartzelatik kanpo gertatzen ari dena. Nola bizi duzu ETAK borroka armatua lagako zuela esan zuenetik sortu den delako 'aro berria'?**

Oso gertutik jarraitzen dut kanpoan ematen ari den bilakaera politikoa eta soziala. Lan handia egin genuen ETAK urrats hori egin zezan, eta konfiantza eta indarra ematen dit. Kartzelaldia bera (guztira hamar urte daramazkit barruan) Mandelak sujeritu zuen bezala daramat: burua landuz (ikasi, irakurri...) eta gorputza zainduz (kirola eginez), eta aldi berean, Ghandiren esaldia egunero gogoratu: *Gobernu injusto baten pean egon ezker, edozein herritar ondradu kartzelan egon beharko zen.*

**Gorenaren epaiaren berri jakin bezain laster, ezker abertzalea lehendakariako hautagai gabe gelditu zela argitaratu zuten zenbait egunkaririk. Zuri buruz ari ziren. Lehendakari ikusten zara? Lehendakaritza lortzea da ezkeraren helburua?**

Atxilotu gintuztenean, ezker abertzalea gure lidergorik gabe utzi nahi izan zuten zirkulazio politikotik at utziz. Orain pozik daude, uste dutelako nire hautagaitzarik gabe Amaiurrek ez dituela Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak irabaziko. Ikusiko dugu nor dagoen pozarren hauteskunde gauean; gu ziur baietz! Lehendakaritza hartzea barik herri gehiengoaren interes ekonomiko, sozial, eta kulturalaren aldeko Gobernu osatzea da helburua. Bakea egonkortu eta krisi ekonomikoari aurre egingo dion Gobernu burujabea eta ezkertiarra lortzea.

**Gobernuekin elkarrizketa zuzenak izateko ordezkaritza izendatu du ETAK, eta Europari eskatu dio gatazkari behin betiko konponbidea emateko prozesua sustatzeko. Aieteko Adierazpena bere osotasunean garatzeko baldintzak daudela uste du, eta Espainiako eta Frantziako gobernuei eskatu die bere delari luze gabe erantzun positiboa emateko. Zer espero duzu gobernuengandik?**

Ez dira mugituko geuk mugiarazten ez baditugu, ez dutelako bakerik nahi! Kontuan hartu behar da bakearen aurkako agenda manejatzen dutenak oso eroso bizi zirela ETArekin borroka armatua gauza guztietarako aitzakiatzat erabiliz. Orain, aldiz (aitzakiarik gabe), ez dute bake eskenatokitako alternatibarik. Beldurra dute, ahulduta daude, jakin badakitelako ez dutela inongo argudio demokratikorik Euskal Herriari bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzea ukatzeko. Horregatik etengabe aitzakia-baldintza berriak jartzera behartuak daude, aitzakiarik gabe bere jarrera autoritarioa eta zapaltzailea gero eta ageriagoa delako gure herriaren aurrean.

**ETAK Europako komunitateari zuzendu dio azken agiria, eta zabaldu-tako prozesua babesteko eta sustatzeko eskatu die Europako erakundeek. Zer papel bete beharko luke Europak 'euskal auzian'?**

Gure estrategia berrian nazioartean konplizitatea lortzeak garrantzia oso handia dauka, eta bide horretan, Aieteko konferentziak argi adierazi zuten konplizitate hori noraino heltzen den, soluzio bide demokratikoaren arloan. Euskal arazoa Europako arazoa da, nazio europarra garelako lehenengo eta bigarrenengo zapaltzen gaituzten estatuak Europako Batasunean daudelako. Eta hirugarren arrazoi bat ere bada, eta garrantzitsua: Europako markoan guk aldarrikatzen ditugun soluzioak martxan direlako: Irlandan eta Eskozian, adibidez.

**Independentzia eskatzen du ezker abertzaleak. Batzuek zalantzan jartzen dute ekonomikoki**

**onuragarria izango litzatekeen euskal heritarrentzat. Zer diozu?**

Carlos III. Espainiako Unibertsitateak orain dela hilabete batzuk gai honen inguruan plazaratutako azterketa sakonean zera zioen: Europar estatu (independentea) izateko baldintza ekonomikoak (eta besteak) hobekien betetzen zituztenak Euskal Herria eta Eskozia zirela (Kataluniaren aurretik), eta berriro diot hori Espainiako unibertsitate batek esana da. Bigarrenik zera esango nuke: euskaldunok merkatu espainiarrean gure ekoizpenaren %30 saltzen dugula. Afera da merkatu espainiarra *bankarrotan* dagoela eta ez dela errekuperatuko; ez da berriro lehengo egoerara itzuliko. Hori ikusita, gure ekoizpena Europako herrialdeetara eta garatzeko bidean diren herrialdeetara saltzera behartuak gaude (Txina, India, Brasil) merkatu espainiarretik ahalik eta menpeko-tasun gutxien edukitzeko. Eta hirugarrenez, gure barne eskaera handitu behar dugu ongizate estatua (soldatak, osasuna, hezkuntza, sektore publikoa indartzu...). Horrela aterako garelako krisitik, neoliberalak planteatzen dutenari alternatiba sozial eta aurrerakoia eskainiz. Eta bukatzeko galdera bat: nor dago prest gure seme-alaben eta biloben etorkizun ekonomiko, sozial eta kulturala, eta heziketa, Aznar, Raxoi, Rubalcaba, Mayor, Rato, Ares eta abarren esku uzteko? Gu ez. Dugun arduragatik besterik ez bada, guk euskaldunen esku nahi ditugu esku-men horiek guztiak.

**“Bakearen etsaiek,  
PP buru dutela,  
kartzeletan  
korapilatu nahi dute  
bake prozesua”**

**Zergatik independentzia?**

Oso labur erantzungo dizut: euskaldunok orain eta etorkizunean askoz hobeto bizitzeko.

**Asko hitz egiten da azkenaldian ezkerren krisiaz. Mundu zabalean eskuinak urrats handiak egin ditu aspaldian. Zerk huts egin du? Zer egin du gaizki ezkerrek?**

Bai, eskumak urrats handiak egin ditu, eta hona hemen horren ondorioa: lehen aldiz historian belaunaldi berriak gurea baino bizi baldintza txarragoetan bizitzera daude kondenatua: beldur gehiagorekin eta eskubide gutxiagorekin. Gauzak aldatzen ez baditugu, noski!. Eskumaren azken urratsa ondo planifikatutako krisia da, finen. Krisia deitu beharrean estafa erraldoia deitu beharko genioke, hemen martxan dagoena diru publikoaren arpilatzeko edo sakeo pirata delako. Dirua esku pribatuetan uzteko (gero eta esku gutxiagotan, Marxek zioen bezala). Eta bide batez, hainbat urtetako borroketan lortutakoa ezabatu nahi dute. Nik jendea gauza batez ohartarazi nahi dut: hau ez da krisi arrunt bat. Hau zibilizazio krisi bat da, non krisi ekonomikoari krisi energetikoa (petroleoa bukatzen hasi da) eta krisi ekologikoa gehitu zaizkion, planeta eta gizakia bera arriskuan jartzearaino. Ezkerren zeregina hausnarketa hau herriarekin konpartitu eta alternatiba estrukturala ematea da.

**Gizartea aldatu egin ei da, eta inkesten arabera, gero eta gehiago dira politikarekiko interesik agertzen ez dutenak. Zer dago horren atzean?**

Arrazoi ezberdinak badaude ere, bada niretzat bat funtsezkoa dena: herriak garbi ikusi du politiko profesionalak (toki guztietan eta hemen ere bai orokorrean) merkatuaren mesedetan lan egiten dutela (merkatuak banketxeak eta multinazionalak dira) eta haien aginduak bete ostean, saritu egiten dituztela (Telefonican, Petronoren, Confebasken, Ferrovialen, FMI..). Horrek, noski, politika ofizialek aldentzeko joera suspertzen dio herriari. Aldiz, saria baino gehiago zigorra dago politika herritik eta herriarentzako planteatzen dugunontzat; kartzela.

**“Herri borrokarik gabe ez ditugu helburuak lortuko”, esana duzu. Ez dakit ezker abertzaleko militanten kasua den, baina konpromiso mailak behera egin ei du. Militantzia ez da garai batekoa. Nola batu indarrak?**

Euskal Herrian zorionez jende konprometitu asko dago bai politikan, kulturen, euskararen, edo eta kirolean, eta horrek oso aberatsa egiten du herri hau. Momentu honetan indarrak biltzeko aukera ezberdinak daude martxan: ezkerreko independentistak biltzen ari gara, presoan alde ere indar metaketa anitza daukagu, eta nire ustez, krisi ekonomikoaren aurka biltzea ere oso beharrezkoa zaigu.

**“Helburua lortuko dugu” diozunean independentziaz ari bazara, behinik behin, aukerarik ikusten al duzu EAJ erakartzeko?**

Independentziaren alde herriaren gehiengoak da seduzitu beharrezkoa, baita EAJ edota PSE/PSNko oinarri soziala ere, zalantzarik gabe. Herri gehiengo hori konbentzitu eta antolatuz ezingo gaituzte gelditu.

**Berradiskidetzea bultzatzeko egitasmoa jarri du martxan Elgoibar-ko Udalak, Lokarri eta Baketikekin elkarlanean. Horren harira Jonnan Fernandezi egindako bi galdera egingo dizkizugu. Zelan adiskidetzen da herri bat horrenbeste itxi gabeko zauri daudenean? Eta zure ustez, zer da derrigorrezkoa eta zer komenigarria, bakea lortzeko?**

Adiskidetzea beharbada helburu potoloegia iruditzen zait oraingoz. Hasi gaitezen elkar errespetatzen eta bakoitzak eragindako sufrimenduaren ardura onartzen, eta berriz ere ez gertatzeko konpromisoa hartzen. Gu egiten ari gara. Estatuak ez. Besteak beste, bai PSOEek eta PPK gezurretan (edo ez egia osoan) oinarritutako kontakizuna inposatu nahi dutelako. Lopez lehendakariak dio etorkizuna egian, justizian, eta memorian oinarritu beharko dela, eta gu ados gaude, baina egia osoan, justizia osoan eta memoria osoan egin behar dela diogu.

**Zuk esana da askok uste dutela ezker abertzalearen estrategia berriaren “berritasun bakarra eta determinantea” borroka armatuaren ingurukoa izan dela, baina hori baino gehiago dela babestu duzu. Zer estrategia berri dakar ezker abertzaleak?**

Niretzat aspalditik zegoen argi estrategia berriarentzat borroka armatua bukatzea ezinbesteko baldintza zela, baina, aldi berean, argi zegoen ez zela baldintza nahikoa gure helburuak lortzeko. Ezker abertzaleak alternatiba integral, demokratikoa eta askatzailea eskaintzen dio Euskal Herriari, zibilizazio krisiari irtenbideak bilatuz, bai nazio mailan eta baita alor sozialean ere.

**Urtarrilaren 7an Egin Dezagun Bideak deituta Bilbon egindako manifestazioak eztabaida politikoaren erdigunean jarri ditu presoak. Etxeratzea eskatzen dute batzuek, eta amnistiarik ez dela egongo erantzun dute besteek. Presoen gaiak zer eragin izango du konponbidea lortzeko bidean?**

Bakeak eta soluziobideak presoan askatzea eskatzen dute Euskal Herrian, Irlandan, Hegoafrikan eta beste hainbat lekutan eskatu zuten bezala. Orain, bakearen etsaiek PP buru dutela, bake prozesua kartzeletan korapilatu eta kolapsatu nahi dute etengabe baldintza berriak asmatuz, eta horri aurre egin behar zaio, presoak bakearen aurka erabili nahi gaituztelako.

**Zer pauso aurreikusten dituzu hemendik aurrera?**  
Ez ditut zehaztuko, besteak beste, tarte handiegia beharko nuke-elako, baina orokorrean zera esango nizuke: bakearen etsaien blokeo saiakeri guk urrats berriekin erantzungo diegula.

**Zerbait esan nahiko zenieke zure herri-ideei?**  
Eskerrak eman nahiko nizkie erakutsitako elkartasunagaitik, eta aldi berean, animoak bidali arrazoi batzuegatik edo besteengatik gaizki pasatzen ari direnei (langabezia...). Eta bukatzeko bizi dugun une historiko honetan parte hartzeko eskatuko nieke. Osasuna eta askatasuna guztiontzat!

**“Has gaitezen elkar errespetatzen eta eragindako sufrimenduaren ardura onartzen”**



# CARLOS LAHOZ

Saskibaloia jokalaria

**Liga Txapelketako hogeitietatik hamazazpi irabazi eta hiru galdu ostean, bigarren postuan amaitu du denboraldia Gabi jatetxea saskibaloia taldeak, eta datorren denboraldian Gipuzkoako Bigarren Mailan jokatu du. Carlos Lahoz taldeko presidentea, entrenatzailea eta jokalariekin egin du berba BARRENEK.**

**“Mailari eustea izango da datorren denboraldiko helburua”**

**lazio denboraldian zailtasunak izan zenituzten, eta aurten, aldiz, mailaz igotzea lortu duzue talde berarekin. Zein izan da zuen sekretua?**

Talde-lana izan da sekretua. Talde-kirol guztietan, baina saskibaloian bereziki, jokalaria guztien elkartzuna behar-beharrezkoa da. Bost jokalarik jokatzen dute, eta bost horien lana oso garrantzitsua da uneoro. Aurten taldea bat eginda egon da, eta horrek ekarri dizkigu emaitza onak. Hogeitietatik bat izango dira taldea sortu zenetik, eta hau izan da lortu dugun estreinako igoera. Etxeko partida guztiak irabazi ditugu, eta etxetik kanpo jokatu ditugun partida garrantzitsuetan ere ez dugu hutsik egin. Oso pozik gaude lortutakoarekin.

**Jokatzeaz gain, zeu zara taldeko entrenatzailea. Zein da zure papera taldean?**

Entrenatzailea, jokalaria eta presidentea naiz! Niri jokalaria izatea gustatzen zait, bereziki. Entrenatzailek ez daukagunez, neuk hartu nuen ardura hori, baina ez daukat entrenatzaile titulorik. Alberto Manzanos lehengo entrenatzaileak lagatzen digu tituloa, eta berak laguntzen digu askotan.

**Zein ezaugarri ditu zuen taldeak?**

Normalean hamabi lagun behar izaten dira talde bat osatzeko, baina gu hamar gara. Horrez gain, dozena erdi bat lagun ditugu inguruan, fitxariki eduki ez arren, noizean behin gurekin jokatzen dutenak. Oro har, gazteak dira gehienak, 20 urte ingurukoak. Badira nagusiagoak ere, eta ni naiz beteroena.

**Zerk bultzatu zaitu hainbeste urtean saskibaloian jokatzerara?**

Izugarri gustatzen zait saskibaloia, gauza asko irakasten dituelako.

Beste jokalaria baten kontra jokatzean gauza asko ikasten dira, eta nire ustez, taldekideekin eta kontrako jokalariekin sortzen den harremana oso polita da. Kantxara irten eta aurrean zuri irabazteko irrikaz dau-den bost jokalaria ikusteak emozio handia sortzen du. Horrez gain, talde polita daukagu, gizatiarra eta horrek jarraitzeko animoak ematen dizkit. Taldeko pertsonak dira garrantzitsuenak. Orain dela urte batzuk taldea lagatzekotan egon nintzen, baina taldekideek ni hor egotea nahi zuten, eta nik ere zerbait zor niela uste nuen. Taldekideengatik jarraitzen dut hemen, eta oso gustura gainera.

**Nola ikusten duzu saskibaloia Elgoibarren?**

Ez dakit gure ardura ote den Elgoibarren saskibaloia gehiago zabal-tzea, adibidez, orain gutxi Ikastolarekin elkarlanean antolatu genuen hiruko saskibaloia txapelketa bezalakoak eginez. Nire ustez, umetatik haurren artean saskibaloia sustatzeko egitasmoa falta da Elgoibarren. Pilota, futbola edo eskubaloia lantzen diren bezala landu beharko litzateke saskibaloia ere. Zaragozan jokatzen nuenean hona etorri ginen Elgoibarko taldearen kontra lagunarteko bat jokatzerara, eta talde sendoa zeukaten. Elgoibarren bazegoen bere garaian saskibaloia talde on bat egiteko aukera. Nik Zaragozan ikasi nuen saskibaloian jokatzen 20 urterekin, baina hango jokalariek umetatik jokatzen zuten.

**Gipuzkoako bigarren mailan jokatuko duzue datorren urtean. Zein da zuen helburua?**

Lehenik eta behin, entrenatzaile bat behar dugu, eta hortik aurrera, mailari eustea izango da gure helburua. Egia esan, maila berri honetan jokatzeak ilusio handia daukagu.

## ‘Elgoibar bi erroberatan’ egitasmoa antolatu du domekarako Herri Eskolako guraso elkarteak

Kalegoen plazatik Sallobentera joango dira bizikletaz

**E**lgoibar bi erroberatan egitasmoa antolatu du domekarako, Herri Eskolako Kalamua guraso elkarteak. 10:30ean irtengo dira Kalegoen plazatik, eta Sallobentera egingo dute joan-etorria bizikletaz. Izaera lehiakorrik gabeko egitasmoa da, eta antolatzaileek distantzia laburretan bizikleta erabiltzeko ohitura sustatu nahi dute. Ibilbi-dea amaitu ondoren mokadutxoia izango dute prest Kalegoen plazan bertan. lazko edizioan 400 lagunek hartu zuten parte.

### Txikientzako moto lasterketa

Etxeko txikienentzat ere prestatu dute proba bat Kalamua guraso elkarteok. Molto motoetan, trizikloetan eta bizikleta txikietan egingo dute lasterketa. Kalegoen plazan hasita, Erro-



sario eta San Bartolome kaleetan zehar joango dira partaideak, berriz ere Kale-

goen plazara iritsi arte. 12:30ean hasiko da lasterketa.

## Athleticek irabazi zuen kadeteen nazioarteko txapelketa



Kadete mailako nazioarteko torneoa jokatu zuten joan zen asteburuan Mintxetan, eta Athleticek irabazi zuen. Zapatuan jokatu zuten lehenengo kanporaketa, eta Realta eta Athletic iritsi ziren finalera. Azken emaitza 3-0ekoa izan zen, zuri-gorrien alde. Elgoibar eta Oxford City taldeek hirugarren eta laugarren postua eskuratzeko partida jokatu zuten, eta bana amaitu zuten norgehiagoka. Penalti jaurtiketetan Elgoibar nagusitu zen. Hortaz, hirugarren postua eskuratu zuten CD Elgoibarko mutilek, eta azken postuan geratu zen Oxford City taldea. Antolatzaileak “pozik” agertu dira txapelketa izan duen harerarekin, jende asko gerturatu zelako Mintxetara partidak ikustera.

### Aldapa gora jarri zaio Elgoibarri Herriarteko Txapelketa

Hernaniren kontra jokatu zuen Elgoibarrek Herriarteko Txapelketa-ko bigarren kanporaketa, eta hiru partidak galdu zituzten Lagunak taldeko pilotariek. Kadeteek 22-1 galdu zuten; jubenilek, 22-14 eta nagusiek, 22-11. Honenbestez, aldapa gora jarri zaio kanporaketa Elgoibarri. Gaur iluntzean jokatuko dituzte itzulerako partidak Ikastolako frontoian.

### Mintxetako muskulazio gelak ordutegia aldatu du

Udal Kirol Patronatuak jakinarazotakoaren arabera, ekainaren 16tik irailaren 9ra bitartean ordutegi berria izango du Mintxetako muskulazio gelak asteburuetan: 10:30etik 13:30era. Astean zehar, ohiko ordutegian egongo da zabalik, hau da, 10:00etatik 21:30era.



# Iñigo Larizek errekorra ezarri du Galdaramiñoko mendi lasterketan

Pilar Arriolak hirugarren egin du emakumezkoetan



Iñigo Larizek irabazi zuen domekan Galdaramiñoko mendi lasterketa, Eibarren, eta gainera, errekor berria ezarri zuen tontorrean. 22:23 denborarekin, minutu batean ondu zuen lehengo marka. Larizek 1:05:58 denbora behar izan zuen 15 kilometroko proba amaitzeko, eta 1:22ko aldea atera zion helmugan Joseba Plaza bigarren sailkatuari. Iaz Plazak irabazi zuen, eta aurten bigarren postuan amaitu du. Eta hirugarren lekuan gure-beste ordezkari bat sailkatu zen: Jon Larrañaga mendararra, 1:12:31 denborarekin.

Emakumezkoetan, bestalde, hirugarren postuan sailkatu zen Pilar Arriola elgoibartarra, 1:39:48 denborarekin. Arriolak txapela jantzi zuen Galdaramiñoko igoerako lehen bi edizioetan, eta laugarren honetan, Aitziber Urkiola eta Mainer Kortaren atzetik sailkatu da.

## Diplomak eta dominak banatu ditu 40-15 tenis eta padel elkarteak

40-15 tenis eta padel elkarteko arduradunek ikasturte amaierako diplomak eta dominak banatu dizkiete etxeko txikienei. Ikasturtea amaituta, udako tenis eta padel ikastaroak jarriko dituzte martxan ekainean eta uztailean. Parte hartzeko interesa dutenek Olaizaga kiroldegian eskuratu dezakete ikastaro-ei buruzko informazio guztia.

Bestalde, ehun lagun baino gehiago ari dira tenis eta padel txapelketan parte hartzen. Dagoeneko bigarren fasean sartu dira jokalaria, eta finalak uztailearen 1ean jokatuko dituzte.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Kadeteen Nazioarteko Txapelketa

Oxford City 0 – CD Elgoibar 1

Real Sociedad 0 – Athletic 1

Oxford City 0 – Athletic 3

Real Sociedad 2 – CD Elgoibar 1

Oxford City 0 – Real Sociedad 1

CD Elgoibar 0 – Athletic 3

Oxford City 1 – CD Elgoibar 1

Real Sociedad 0 – Athletic 3

### ESKU PILOTA

Herriarteko Txapelketa

Hernani 22 – Elgoibar 1 (Kad.)

Hernani 22 – Elgoibar 14 (Jub.)

Hernani 22 – Elgoibar 11 (Nag.)

## AGENDA

### ESKU PILOTA

Barixakua, 15

17:00 Lagunak txapelketako finala

19:00 10Bai txapelketako finala

20:30 Elgoibar-Hernani (Herriarteko txapelketa)

## Igeriketa ikastaroak antolatu dituzte udarako

Elgoibarko Kirol Patronatuak helduentzako eta umeentzako igeriketa ikastaroak antolatu ditu udarako. Goizetan, eguerdian eta arratsaldean eskainiko dituzte ikastaroak, eta hasiberrientzat nahiz ibilitakoentzako saioak egongo dira aukeran. Ekainaren 25etik uztailearen 20ra izango dira ikastaroak. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena, ekainaren 16rako.

## Gaur jokatuko dute 10Bai txapelketako finala

Joan zen domekan jokatzekoa zen 10Bai pilota txapelketako finala, baina euria zela eta, atzeratu egin zuten. Hortaz, gaur arratsaldean jokatuko dute norgehiagoka, 19:00etatik aurrera. Agirrebeña eta Atano izango dira batetik, eta beste bikotea Meabasterretxeak eta Eneko Loiolak osatuko dute.

## ‘Rusini’ antzezlanaren estreinatuko du Taupada Antzerki Taldeak bihar zortzi, hilaren 22an

Elgoibarko Herriko Antzokian izango da emanaldia, 22:15ean hasita

Lan berri batekin dator Taupada Antzerki Taldea: *Rusini*. Gaur zortzi estreinatuko du, ekainaren 22an, Elgoibarko Herriko Antzokian. 34 urteko historian hogeigarren antzezlanaren honako hau Taupadak. 22:15ean hasiko da antzezlanaren, eta sarrerak Pitxintxu dendan jarri dituzte salgai, sei euroan.

Edurne Lasa zuzendariak jakinarazi duenez, tragi komedia bat da *Rusini*. Berez J.L. Alonso de Santosek idatzitako obra da, Angel Ugarteburuk euskaratutakoa, eta elgoibartar talde batek emango dio bizia. Hondo jota dagoen zirko berezi baten gaineko obra da. Etsita daude zirkoan, baina taldera gehitu den pailazo batek itxaropena ekarriko du, eta gorabehera eta zailtasun guztien artean, maitasun istorio erromantiko bat gailenduko da azkenean.



Jose Martin Urrutiak egin du kartela

## Sanbartolomeetako egitarauaren azalaz aukeratzeko lehiaketa antolatuta du Udalak



lazko kartel irabazlea

Elgoibarko Udaleko Kultura Batzordeak lehiaketa antolatuta du 2012ko San Bartolome jaietako programaren azalaz aukeratzeko. Lehiaketa horretan 18 urtez gorako edozeinek parte hartu ahal izango du, eta teknika librea erabiltzeko lanak aurkeztu ahal izango dira, gehienez ere pertsona-

ko bi. Lan horretan ondorengo testu hau agertu beharko da ezinbestean: *Elgoibar, San Bartolome Jaiak 2012*. Uztailaren 6rako aurkeztu beharko dira lan guztiak, Kultur Etxean, 13:00ak orduko. Lehiaketan 700 euroko sari bakarra izango da.

### Haurrentzako lehiaketa

18 urtez azpikoentzako beste lehiaketa bat antolatuta dute. Sail horretan ere, edozein teknika erabili ahal izango da, baina ezin izango da erliebedun kartelik aurkeztu, ezta plastilinarekin edo zerrautsarekin egindakorik ere. Nagusien lehiaketan ez bezala, haurren lehiaketan edozein neurritako lanak aurkeztu ahal izango dira, baina *Elgoibar, San Bartolome Jaiak 2012* testua agertu beharko du derrigor. Uztailaren 6rako aurkeztu beharko dira lanak, eta guztira, sei sari banatuko dituzte. Informazio gehiago nahi duenak Kultura Sailean eskuratu dezake.

### Sanmigeldarren Eguna ospatuko dute domekan

Sanmigeldarren Eguna ospatuko dute domekan. Meza nagusiarekin hasiko dute eguna, 11:30ean. Meza ostean, salda eta txorizoa banatuko dituzte, eta 12:30ean, auzotarren arteko esku pilota partidak jokatuko dira. Urtero bezala, bazkaria izango da, hala ere, eguneko ekitaldi nagusia. 14:30ean batuko dira bazkaltzeko, eta aurten Aiastiako eskolan ikasitakoak batzeko aprobetxatuko dute. Orain 40 urte itxi zuten eskola, eta hango ikasle izan zirenek taldeko argazkia aterako dute bazkalostean. Ondoren, dantzaldia izango dute, Elustondo anaiekin. Bazkaritarako txartelak 30 euroan jarri dituzte salgai ondorengo lekuetan: Armueta, Ziarra eta Sahatsu harategietan eta Kalamua Elkartean.

# Mutrikuko Laumono taldeak kontzertua emango du gaur, Kultur Etxeko sotoan

Rock klasikoa egiten du talde mutrikuarrak

**H**ard rock klasikoaz gozatzeko aukera eskainiko du gaur gauean Mutrikuko Laumono taldeak. Ehun Kilo Elgoibarko taldea desegin ondoren sortu zuen Jon Iturrino gitarra-joleak Laumono, 90eko hamarkadaren amaieran. Enekoitz Andonegi, Egoitz Andonegi eta Rikar Garagartzarekin osatu zuen Iturrinok laukotea. Hasieran Deep Purple, Hendrix edota Led Zeppelin bezalako taldeen bertsioak jotzen zituzten, eta 2001ean atera zuten estreinako diskoa, *Beidau* izenburupean. 2003an taldea banatu egin zen, eta taldekide bakoitzak bere ibilbideari ekin zion. Bost urte geroago batu ziren berriro Iturrino eta Enekoitz Andonegi, eta baxuan Iñigo Gorritxategi. 2010ean batu zitzairen Rikar Garagartza, eta *Adrenalinia* izeneko dis-



koa grabatu zuten. Blues, hard rock eta fusion erritmoz osatutako bederatzi kanta biltzen ditu diskoak, eta gaur gauean Elgoibarren aurkeztuko dituzte abestiok. Sinuosek antolatuta, 22:30ean hasiko da kontzertua Kultur Etxeko sotoan, eta sarrerak 3 euroko prezioa izango du.

## Dolmenen ibilbidearekin hasiko da bihar, Debabarreneko sustraietara bidaia



Debabarreneko historiako sekretuak ezagutzeko programa antolatu du Debegeasak, Debanatura elkartearekin batera. *Arbasoen Deia* izenburupean, gure historian barrena hiru ibilbide proposatu dituzte: Dolmenen ibilbidea, Paleolitoko ibilbidea eta burdinolen ibilbidea. Lehenengoa bihar izango da; Dolmenen Ibilbidea, hain zuzen ere. Debanatura Elkarteko kideen laguntzarekin, artzainen kulturaren aztarna adierazgarrienak ezagutuko dituzte bisitariak, hala nola, trikuharriak eta tumuluak. 10:00etan irtengo dira Karakateko aparkalekutik, eta ibilbideak hiru orduko iraupena izango du gutxi gorabehera. Izena emateko, 943 1911 72 edo 695 783 656 telefonoetara deitu edo [debanatura@hotmail.com](mailto:debanatura@hotmail.com) helbidera idatzi. Helduek 9 euro ordaindu beharko dituzte, eta umeek 5 euro. Informazio gehiago [www.debabarrenaturismo.com](http://www.debabarrenaturismo.com) helbidean.

## Gazteen Eguna antolatzeko bilera, domekan

Sanbartolomeetako Gazteen Eguna antolatzeko deia egin du Gazte Asanbladak. Domeka honetarako jarri dute hitzordua, 17:00etan, Gaztetxean. Dena den, bilerara azaltzerik ez dutenek [elgoibarkogazteasanblada@gmail.com](mailto:elgoibarkogazteasanblada@gmail.com) helbidera idatzita parte hartu dezakete antolakuntzan.

## Urruzunoko jaiak ospatuko dituzte zapatuan

Egun handia dute bihar Urruzunon. Auzoan hildakoen omenez meza izango da arratsaldean, 17:30ean, eta ondoren mokadutxo batuko dute. Meza osterako, eta ohitura bihurtu den legez, motor erakusketa antolatu dute, eta iluntzean, afaltzeko batuko dira guztiak auzoko gastronomia elkarteetan. Auzokoentzako ez ezik kanpotik joaten direnentzako ere egingo dute lekua soziedadean, antolatzaileek jakinarazi dutenez. June eta Tamara soinu joleek alaituko dute eguna.

## Euskara ikastaroak, udan

Iraileko azterketei begira, euskara ikastaroak emango ditu Elgoibarko AEK euskaltegiak uztailean eta irailean. EGA zein HABEko azterketetak prestatzeko eskolak izango dira. Interesatuak, ekainaren 27ra arte dute izena emateko aukera. Informazio gehiago eskatzeko, AEK euskaltegira jo daiteke: 607 601 423 edo [elgoibar@aek.org](mailto:elgoibar@aek.org).

## Lana bilatzeko tailerrak, emakumeentzako

Elgoibarko Berdintasun Sailak eta Lanbidek emakumeei lana bilatzen laguntzeko tailerrak antolatu dituzte ekainerako. Hiru tailer izango dira, ekainaren 19tik 21era bitartean. Lanbidek, Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako ikastaroak direnez, doakoak izango dira. Informazio gehiago, 943 744 425 telefonoan edota [elgoibar@lanbide.net](mailto:elgoibar@lanbide.net) helbidean.

## LANA

### ESKAERA

- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, udan. Orduka edo internan. ☎ **698 632 922**
- Emakumea lan bila. Ileapaintzaile eta garbitzaile lanean esperientzia handia. ☎ **663 430 810**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **686 578 228**
- Neska gazte euskalduna uztailean umeak zaintzeko prest. ☎ **697 322 306**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarak edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest. ☎ **699 609 190**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarak egiteko prest. ☎ **699 232 823**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarak egiteko prest. ☎ **690 925 929**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarak egiteko prest. ☎ **669 513 926**
- Haur Hezkuntzako ikasle euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **674 862 116**
- Gizona edozein lan egiteko prest. Lanerako gogo handia daukat. ☎ **648 505 985**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **616 260 793**

- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest eta garbiketarak edo saltzaile lanak egiteko ere bai. Papelak eta erreferentziak ditut. ☎ **636 419 814**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia handia. ☎ **685 729 790**
- Esperientziadun emakumea gauez nagusiak zaintzeko prest. Papelak legez ditut. ☎ **670 551 133**
- Esperientziadun neska enpresa txikien eta autonomoen kontabilitate eta zerga aitorten lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **626 642 965**
- Bi neska euskaldun, uztailean klase partikularrak emateko prest. Ingelesa izan ezik. ☎ **671 403 213**
- Bi neska euskaldun, uztailean umeak zaintzeko prest. ☎ **630 055 077**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut, etxez etxe. ☎ **943 744 062**

### ETXEBIZITZAK

- Atikoa alokatzen dut San Frantzisko kalean. Logela bat, komuna, egongela, sukalde-jangela. Dena berria. ☎ **680 707 639**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **649 360 378**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **620 664 454**

- Teilatu altua duen ganbara alokatzen dut Elgoibarko erdialdean. Bi logela, sukalde, egongela, komuna, argi naturala, igogailua. Altzariekin. ☎ **616 111 603**

### BESTELAKOAK

- Stokke Sleepi (mini + sehaska) zuria salgai. Egoera oso onean, gutxi erabilia. 350 euro. ☎ **648 203 775 (19:00-20:00)**

### KINTOAK

- 1952an jaio eta aurren 60 urte egingo dituzten elgoibartarrek bazkaria egingo dute ekainaren 16an, Belaustegi jatetxean. Interesatuak 85 euro sartu behar dituzte, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: **3035 0007 26 0071124362**. Joan-etorria autobusez.
- 1972an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute irailaren 15ean, Sigma jatetxean. Bala-tokian aterako dute erretratua, 13:00etan eta ondoren luntxa egingo dute Tantaka tabernan. Interesatuak 60 euro sartu behar dute, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 22 0071124579.

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

## ■ ZORIONAK ZURI

### OSPAKIZUNAK KINTOAK




Mila esker 47ko kintoei! Oso egun polita pasatu genuen!


### OSPAKIZUNAK URTEURRENA



Pasa den larunbatean Elgoibar Ikastolaren 50. urteurrena ospatzera hurbildu zinetenoi, eskerrik beroenak. Ea 75. urteurrenean eta ordura arteko Ikastolaren Eguna ospatzen dugunean elkar ikusten dugun. Besarkada handi bat guztioi! DBH3ko gurasoen eta ikasleen partez.



• Zorionak, **Igor**, ekainaren 18an urte bat egingo duzulako. Familiako guztien partez, muxu bat.



• Zorionak **Estiburi**, 3 urte beteko dituelako. Ondo-ondo pasa, eta muxu handi bat familiako partez.



• Zorionak, **Luken**, asteazkenean 3 urte potolo bete zenituelako. Patxo handi bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Olhanel** Familiako guztien, eta bereziki, Mikelen partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Markell** Astelehenean 5 urte, txapeldun! Oso ondo pasa eguna! Patxo handi bat, denon partez.



• Zorionak, **Iker**, bihar 7 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat etxeko partez.



• Zorionak, **Nerea**, atzo 6 urte bete zenituelako. Muxu asko etxeko eta Loliren partez.



• Zorionak, **Maraki** Asko pozten gara zure 24. urtebetetzea gurekin ospatuko duzulako. Has dadila festa! To, to, morena!!



• Zorionak, **Aimar**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat familiako partez.



• Zorionak, **Maleni** Bihar, 3 urte! Ondo pasa eguna, eta muxu potolo bat, bereziki, Intza, Nahia eta Harrieten partez.



• Zorionak, **bikotel** Zuen bizitzako egunik politena heldu da, eta guk zuekin batera bizi nahi dugu. Elgoibarko koadrilako partez.



• Zorionak, **bikotel** Primeran pasa zuen eguna! Alba eta Egoitz.



• Zorionak, **Endika**, zure 3. urtebetetzean. Patxo handi-handi bat familiako eta bereziki, Markelen partez.



• Zorionak, **Cris eta Arka** Azkenek iritsi da hainbeste amestutako eguna! Ondo pasa! Guk hala egingo dugu-eta!



• Zorionak, **Maria**, gaur urtebete egin duzulako. Muxu handi bat familiako eta bereziki, Elena partez.



• Zorionak, **Sara eta Paula**, hilaren 4an eta 20an zuen egunak direlako. Muxu bat, familiako denon partez.

## OSPAKIZUNAK KINTOAK



50eko kintoak primeran pasatu genuen maiatzaren 26an! Bost urte barru elkartuko gara berriro! Antolatzaile taldearen partez, mila esker etorri zineten guztioi.



Ekainaren 22an,  
**UDALDI FESTA** ludotekan:  
merendola, jolasak  
eta bingo handia

Uztailaren 3an eta 4an,  
**FUTBOL 7 TXAPELKETA**  
(99, 98 eta 97an jaiotakoentzat).  
Uztailaren 9tik 12ra  
**EGONALDIA MUNDAKAN**  
(99 eta 98an jaiotakoentzat)



## 15 barixakua

### *Txotxongiloak*

17:30 'Erreka Mari'

Elgoibarko Izarrak antolatuta, txotxongilo ikuskizuna. Kultur Etxeko sotoan.

### *Kultura*

18:30 'Sleepers'

Javier Arcenillasen argazki erakusketa. Bihar izango da azken eguna. Kultur Etxean.

### *Musika*

23:00 Laumono

Sinuosek antolatuta, Mutrikuko Laumono taldeak kontzertua eskainiko du. Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 3 euro.

## 16 zapatua

### *Mendi irteera*

10:00 Dolmenen ibilbidea

Karakateko aparkalekuan.

### *Omenaldia*

12:00 36ko gerran hildako gudariei omenaldia  
Zirardamendin.

### *Jaiak*

17:30 Uruzuno auzoko jaiak  
Urruzunon.

## 17 domeka

### *Kirrola*

10:30 'Elgoibar bi erroberatan'

Kalegoen plazan hasiko da.

12:30 Moto txikien lasterketa

Etxeko txikienentzat, Kalegoen plazan.

### *Ospakizuna*

11:30 Sanmigeldarren eguna

Meza, pilota partidak eta auzotarren bazkaria egingo dituzte. Aiastian.

### *Musika*

12:30 Kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du, Herriko Antzokian.

### *Egitarua:*

- *Evocación*, martxa.  
(E. Cebrian).

- *Poeta y aldeano*, obertura.

(Fran V. Suppé).

- *El rey león*, musikala.

(Elton John).

- *Happy mallets*.

(H. Evers).

- *Hymn of the highlands*, suite.

(Phillip Sparke).

## 19 martitzena

### *Gastronomia*

19:00 Pintxo lehiaketa

Hilaren 22ra arte dastatu ahal izango dira lehiaketako pintxoak.

## 21 eguna

### *Hitzaldia*

19:00 'Hondakinek badute irtenbidea'

Mendaroko Zero Zabor taldeak antolatuta, udaletxeko pleno aretoan.

## 22 barixakua

### *Sariak*

12:00 IMH sariak

IMHko Heziketa Zikloetako diplomak eta sariak banatuko dituzte, Areto Nagusian.

### *Kultura*

22:15 Antzerkia

*Rusini* antzezlanaren taularatuko du Taupadak, Herriko Antzokian.

### OKINDEGIA

17 domeka FOTERO

### BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

### Egunez

9:00 - 22:00

15	Fernandez
16	Yudego
17	Yudego
18	Zabaleta
19	Fernandez
20	Ibañez
21	Garitaonandia

### Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego
Yudego
Yudego
Etxeberria
Garitaonandia
Etxeberria
Garitaonandia

### Fernandez

Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

### Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel: 943 751 638

### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
Tel: 943 751 384

### I. URTEURRENA

## PAULINA LASA ENPARAN

2011ko ekainaren 12an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainak 16, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan.

Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.





# OSASUN GIDA



## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

### **KEMEN BELARDENDA.**

#### **NATUROPATA, IRIDIOLOGOA ETA HOMEOPATA.**

Belardietetika eta fitoterapia, janari biologiakoa, "Esencias Trinidad", BACH loreak... Kontsultak:

- Programazio neurolinguistikoa (P.N.L.)
- "DIETA FACIL", pisu kontrola
- Makrobiotika eta elikadura energetikoa
- Famili Konstelazioa (banakako eta taldeko saioak)
- Bioenergia
- Reflexo-energia (haurdunaldietan ere)
- Aurpegiko lifting japoniarra

Egunero: 9:00-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 29 - Elgoibar  
Tel: 943 744 031  
Aurretiko zita

### **SANATANA DHARMA**

#### **YOGA ELKARTEA**

Anginei aurre egiteko masajea.

Astearte eta ostegunetan:  
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30  
Mendaron astelehen eta  
asteazkenetan: 15:00-16:30

Urasandi, 9 - Elgoibar  
Tel: 943 748 593 (ldoia)  
685 722 131

## ORTOPEDIAK

### **ITZIAR SARASKETA**

Egunero:  
9:30-13:00 / 17:00-20:00

San Frantzisko, 12 - Elgoibar  
Tel: 943 74 35 62

## OPTIKAK

### **IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA**

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Bartolome, 10 - Elgoibar  
Tel: 943 743 734

### **UZURI**

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

## MASAJISTAK

### **VICTORIA IRAEGI**

(Esku-terapiak: kiropraxia, drantzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).  
Astelehenetik Ostiralera:  
8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40  
(atzealdea) - Elgoibar  
Tel.: 943 740 770

## PODOLOGOAK

### **OINBERRI**

Astelehenetik ostiralera:  
9:00-13:30 / 15:00-19:30

Errosario kalea, 25- Elgoibar  
Tel: 943 741 795

### **IÑIGO ARRILLAGA YUDEGO**

- Hanken afekzioen terapia.  
- Neurriera egindako plantilak.  
- Hanka diabetikoen zainketa.  
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.  
Ordutegia:  
9:30-13:30 / 15:30-19:30

San Frantzisko, 20 behea  
Tel: 943 741 645

## FISIOTERAPIA

### **AINHOA FISIOTERAPIA**

Fisioterapia eta osteopatia.  
Jausoro, 6 behea.  
Tel.: 943 531 953  
669 565 745

### **C.R.F. ERREABILITAZIO ZENTROA BERRIA! Medikuz azterketak esfortzu frogarekin.**

(Partikularrei eta seguruen bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.  
Astelehenetik ostiralera:  
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

San Inazio, 2 - Elgoibar  
Tel.: 943 743 374

### **fisio&más**

#### **Fisioterapia Aurreratua eta Kirol Berregokitzea**

- Esku-terapia
- E.P.I.® (Tendinitis tratamendua)
- Esku Drainatze linfatikoa
- Mesoterapia

- KIROL BERREGOKITZEA
- OSASUNERAKO ARIKETA AGINDUA

Aupa Zen Medikuntza  
Estetika Zentroa  
Jausoro Plaza, 1 - Elgoibar  
(Sta. Klaran,  
Udaletxeko zubitik gertu)  
Tel.: 943 743 440

TX4 Fitness Gimnasioa  
Ipar Kale, 3 - Eibar  
Tel.: 667 953 628

## HORTZ KLINIKAK

### **IRALE**

Errosario Kalea, 7 behea  
Elgoibar  
Tel: 943 743 679  
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)  
Tel: 943 177 134  
[irale@irale.com](mailto:irale@irale.com)  
[www.irale.com](http://www.irale.com)

### **LEKU EDER**

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Harrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo medikua  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
[lekueder@infomed.es](mailto:lekueder@infomed.es)

### **BEITIA ARRIOLA**

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea  
Elgoibar  
Tel: 943 531 869





**DANOBATGROUP**



**100** YEARS  
**Alcorta**  
Forging Our Future



**ETXE-TAR**

***Mila esker, DANOBAT, ALKORTA eta ETXE-TAR!!!***

***Zuek emandako diru-laguntza***

***Elgoibar euskalduntzen inbertituko dugu.***



**ELGOIBARKO IZARRA**  
KULTUR ELKARTEA